



Huyghen hitzaldia izango da gaur Artelekun

GARA | DONOSTIA

Artelekun telebistari buruz egiten ari den nazioarteko tailerrean gaur mintzaldia emango du Pierre Huyghek bideokonferentzia bidez. Biharko iragarritako zegoen ekitaldia aurreratu egin da eta gainerantzeko hitzaldiak 11etan hasiko badira ere, paristar artistarena 18etan hasiko da. Franck Lacardek eta Alexis Vaillantek zuzentzen duten telebistari buruzko tailerra joan den asteazkenean zabaldu zen Bertrand Scheffer-en ekitaldiarekin eta etzi jarraituko du Andres Hispano Lopez-en hitzaldiarekin.

Irailen zehar beste lau gonbidatu pasatuko dira tailerretik. Datorren ostegunean Matthieu Laurettek hitz egingo du, irailaren 13an Jean Christophe Royoux etorriko da, biharamunean Marcelo Exposito mintzatu da eta irailaren 15ean, Carles Ameller.

Bestalde, mende berri baten atarian gaudela eta, Francisco Jarautaren zuzendaritzapean mindegi berri bat jarriko da abian irailaren 6an Artelekun, joera berriak arakatzeko asmoz. Izen handiko irakasleak

pasatuko dira, hala nola, Samir Naïr paristar filosofo eta politologoa, Ignacio Ramonet, "Le Monde Diplomatique" asteakariaren zuzendaria eta pentsalaria, Francisco Jarauta bera, Marc Auge paristar antropologoa, Santiagao Miranda eta Perry King diseinatzaileak, Francesco Dal Co, arkitektureko historialaria eta Massimo Cacciari filosofoa.

Arakatuko diren gaiak ere hizlariak bezain aunitzak dira, nahiz eta amankomunean gauza bat duten, mende berriari buruzko kezka. Naïr-ek emango duen hitzaldiaren izenburua "Inperioa munduko aunitzasunaren aurrean" da. Dal Cok, berriz, Frank O. Gehryren arkitektura aztertuko du.

Mahainguruak ere egingo dira. Irailaren 7an, adibidez, "XXI. menderako proiektu politikoa" gaiaren inguruan Sami Naïr, Ramonet, Jarauta eta Xanti Eraso eseriko dira eta irailaren 8an, berriz, "Zentzu sozialaren eskakizuna" gaiaren inguruan Manuel Borja (Murcia), Ute Meta Bauer (Stuttgart), Jean-Louis Maubant (Villeurbanne) eta Mar Villaspesa (Tarifa) bilduko dira.